

A4

Otras: Arren, egia bat zarrez...

XV-XVI. mendeetako gaztelaniazko *cancionero* motako bildumetan ohikoa zen poema baten izenburua izatea “Canción [...]”, eta gero, hurrengo batzuen aurrean, “Otras” jartzea, “Otras canciones” osorik idatzi beharrean; edo “Copla [...]”, eta gero “Otras”, “Otras coplas” idatzi beharrean. Pentsatu behar dugu galdu diren orrietakoren batean (1155-1158 edo 1160-1163 orriak) zegoela horietako “kanzio” edo koplaren bat, eta ondoren datozen bost ahapaldiak direla “Otras”. Bostak dira molde tradizionalako kopia luzeak eta ahozko literaturaren oihartzuna dute (bereziki hirugarrenak eta bosgarrenak: bi partetan banatuak, sarrera estilizatuan irudi ordezkaria eta bertso-azken figuratiboan irudi fokala). Bostetan aipatzen dira maitasun kontuak.

<1165r>

Otras

—Arren, egia bat zarrez:¹
on dereiztazun² ala ez.—
—Ahoan laztan zaitudaz,³ baina
gogoan baterere⁴ ez.

Donzeilatxo atrebidea,⁵ 5
ez zabilz ene gogoan, ez,
bestela ondo deizut,⁶ baina
ezkondu baxinbatean⁷ ez.

Gure ortuan madari,
gurazaurik⁸ hamabi, 10
beste amore bilatuko nax
amore behar banadi.⁹

Ene laztantxo linda damea,¹⁰
esporzu¹¹ hartu egizu;
uste gutxien dozun orduan, 15
enegaz beharko dozu.

Urtan¹² eder harria,
haen gainean txoria,

¹ *zarrez*: ‘erran iezadazu, esaidazu’.

² *on dereiztazun*: ‘maite nauzun’.

³ *lztan zaitudaz*: ‘maite zaitut’.

⁴ *baterere*: ‘batere’.

⁵ *atrebidea*: ‘errespetu gabea, lotsagabea’.

⁶ *ondo deizut*: ‘ondo egingo dizut, on egingo dizut’.

⁷ *ezkondu baxinbatean*: ‘ezkontzeko bezainbeste, ezkontzeko adina’.

⁸ *gurazaurik*: ‘gurazaoak, friskuak’; mertxikaren familiako arbolari eta fruituari esaten zaio *gurazaua*.

⁹ *beste amore bilatuko nax / amore behar banadi*: ‘beste amore bat bilatuko dut, amore behar badut’.

¹⁰ *linda damea*: Gaztelaniazko XVI. mendeko literaturan askotan erabili da *linda dama* epitetoa; euskaraz, ordea, ez da hain arrunta, baina behin baino gehiagotan agertzen da *Neska ontziratua* baladaren Foruko (ik. Lakarra et al. 1983: II, 135-136) eta Derioko (ik. Arejita et al. 1985: 45-46) aldaeretan. Lazarragaren eskuizkribuan, zortzi aldiz aurkitu dugu.

¹¹ *esporzu*: ‘adore’.

¹² *Urtan*: ‘uretan’.

amorantian lekidanari¹³
atera neio begiak.¹⁴

20

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A4 – *Otras*: Arren, egia bat zarrezt... (Gaurko grafiara egokitua)” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago

¹³ *amorantian lekidanari*: ‘gorteiatzen, limurtzen arituko litzaidakeenari, ibil lekidakeenari; ni gorteiatzen ibil dadinari’.

¹⁴ *atera neio begiak*: ‘aterako nizkioke begiak’.